

# ESPERIENTZIAREN IZENA: Pikara Magazine

*Pikara*  
online magazine

## OINARRIZKO DATUAK

- **Erakundearen izena:** EME Komunikazioa
- **Erakunde mota:** Elkartea
- **Sortze-urtea:** 2010
- **Jarduera-sektoreak:** komunikazio feminista, ahalduntze digitala eta ziberfeminismoa
- **Egitura:**
  - Koordinazio-taldea: hiru kazetari eta administrari bat (soldatadunak)
  - Talde argitaratzailea: 12 bazkide, soldatarik gabe
  - Edukiak lantzen dituen komunikatzailez eta ilustratzailez osaturiko sarea
- **Kokapena:** Lamana 2, Bilbo
- **Webgunea:** <http://www.pikaramagazine.com/>
- **Esperientziak jorratzen dituen gaiak:** komunikazio feminista, sare sozialak, ahalduntze digitala
- **Jarduera eremua:** estatua, nazioartekoa

## HARREMANETARAKO DATUAK

- **Harremanetarako pertsona:** June Fernández
- **Telefonoa:** 944 97 97 76
- **Helbide elektronikoa:** [june@pikaramagazine.com](mailto:june@pikaramagazine.com)

## SINTESIA

### ESPERIENTZIAREN DESKRIBAPEN OROKORRA:

Pikara Magazinek kalitateko kazetaritza egiten du, genero-ikuspegiduna, komunikabideetan gutxitan agertu ohi diren pertsonak eta historiak protagonista dituena. Gizartearen eta kulturaren alorretako gai interesgarri guztiak lantzen ditugu, beste ikuspegi batekin: zorrotza, inklusiboa, konprometitua, hauslea eta atsegina.

Irakurle gisa, **ikuspegi feminista** eta **kazetaritza ona** bateratuko zituen komunikabide baten beharra sumatzen genuen. Kazetari gisa, geure espazio propioa eraiki nahi genuen, liluratzen gaituzten gaiei buruz komunikatuz gozatzeko.

## TESTUINGURUA

**Zeuden beharrak:** Ohiko komunikabideetan (baita alternatibo askotan ere) nagusi den androzentrismoaren aurrean, komunikabide alternatibo bat eskaintzea, emakumeak ikusarazi, estereotipo sexistak hautsi eta kazetaritza kontzientziatua eta arduratsua eskainiko zituena, oraindik desberdintasunak dituen gizartearen imajinarioak eraldatzeko.

**Aldeko aurrebaldintzak:** Euskal Herrian bete gabeko hutsune bat zegoen, lehenik Andra egunkaria eta gero Frida aldizkaria itxi ondoren. Internetek aldizkari digital berri eta ilusionagarrien bidez eskaintzen dituen aukerak ikusita, abentura honetan bete-betean sartzera animatu ginen.

**Aurkako aurrebaldintzak:** Prekariatatea. Hasierako inbertsio eskasa. Koherentzia politikoak eraginda, oso hautakorrak gara finantzaketa-iturriekin (ez dugu enpresa handien publizitaterik onartzen, ez diogu edozein erakunderi dirurik eskatzen...).



### Zer lortu nahi zen?

Publiko zabalari kalitateko kazetaritza eskaintzea, genero-ikuspegiduna, eta pentsamendu eta jarduera feministaren berri ematea.

Talde feministei eta emakume-taldeei elkartu, eztabaidatu eta ikusarazteko gunea eskaintzea.

Irudi eta tonu erakargarri, fresko eta hausleen bidez bereiztea, konbentzitutako jendearengana baino gehiagorengana iristeko.

Zeharkako feminismoa lantzea, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ez ezik, arrazismoa, kolonialismoa, LGTBfobia eta beste opresio-sistema batzuk ere elkarrekin lotuta jorratuz.

### Zer lortu zen?

Hilean 150.000 bisita dituen aldizkari digitala; urtero paperezko aldizkari bat egin eta 5.000 bat ale kaleratzea; 120.000 bat jarraitzaile sare sozialetan; urteko kuota bat ordaintzen duten 700 lagun; eta gure proiektuarekin identifikatuta dagoela jakinarazten digun komunitate leiala.

Beste komunikazio-proiektu batzuk ere kaleratu ditugu:

- Zeinu-hizkuntzako glosario feminista: <http://glosario.pikaramagazine.com>
- Jarduera feministen agenda: <http://agenda.pikaramagazine.com>
- Eztabaida-foro feminista: <http://foro.pikaramagazine.com>

### Nola lortu zen?

Kazetariz, ilustratzailez eta abarrez osaturiko talde bat ilusionatuz. Haiek kalitateko edukiak ekartzen dituzte munduko herrialde askotatik (baita Palestinatik ere).

Komunitate-sentimendua sortuz: jendeak, gure aldizkaria irakurri ez ezik, eztabaidatu, elkarri eragin, artikulua bidali, selfieak ateratzea abar ere egiten du.

Aurrez aurreko jarduerak antolatuz: aurkezpenak, solasaldiak, eztabaidak...

Aldizkari hutsa izatetik prestakuntza-zerbitzuak eta komunikazioaren eta generoaren alorretako aholkularitza eskaintzen dituen proiektua izatera igaroz.

Tokikoaren eta globalaren arteko oreka lortuz. Presentzia handia dugu Bilbon eta Euskal Herrian, baina Espainiako estatutik kanpo ere irakurle- eta jarraitzaile-oinarri zabala lortu dugu, batez ere Latinoamerikan.

### Nork ahalbidetu zuten?

Gure aldizkaria irakurri, urteko kuotaren bidez lagundu eta gure crowdfundinga babesten duten irakurleek.

Diru-laguntzen bidez laguntzen diguten erakundeek (Emakunde eta Calala).

Gure prestakuntza- eta aholkularitza-zerbitzuak kontratatzen dituzten erakundeek.

### Indarrak eta ahuleziak/zailtasunak

Indarrak:

- Kalitatezko kazetaritza, nortasun grafikoa, sinpatia eta babesa sorrarazten dituen marka.
- Antzeko komunikabiderik ez zegoen unean sortzea eta, ondoren, beste komunikabide lagun batzuekin aliantzak sortzea.
- Beste komunikabide alternatibo batzuetatik ikastea (Diagonaletik, batez ere).

Ahuleziak/zailtasunak:

- Korporazio handien, erakundeen edo alderdien baliabiderik ez jasotzeak dakarren prekarrietatea.
- Interneten logika, horren arabera guretzat estrategikoak diren edukiak (giza eskubideen ikuspegia duen nazioarteko kazetaritza, adibidez) ez baitira biralena.

### Arrakasta faktoreak

- Gure irakurleen ohiko esperientziekin konektatzea.
- Feminismoaren ekarpen "konplexuak" publiko zabalarentzat ulertterazak diren artikulua bihurtzea.

- Nortasun grafikoa: ikoniko bihurtu diren ilustrazioak.
- Sare sozialak erabiltzeko modua: hurbiltasuna, samurtasuna, freskotasuna...
- Paperezko aldizkaria aurkeztea elkartasunezko, konplizitatezko eta hurbiltasunezko harremanak sortu diren espazioetan.

### **Ikasitako irakaspenak**

- Bakarrik ezin dugula, baina lagunekin bai: sareak sortzearen garrantzia, bai asoziazionismoan bai kazetaritzan.
- Kazetaritzaren dogma guztiak zalantzan jartzea: zer den berri bat, zer den iturri aditu bat...
- Irribarre egitea: gure eguneroko jardueran zaintza eta samurtasuna txertatzea.
- Egitura horizontalaren aldeko apustua egitea, erabakiak taldean hartzea, botere- harremanak zalantzan jartzea.
- Ahuleziak erakustea, zaugarri agertzea (prekarioak garela, zalantza egiten dugula eta huts egiten dugula onartzea), gure indarretako bat da, gure koherentzia eta gure komunitatearen enpatia areagotu egiten baititu.
- Intuizioa eta naturaltasuna balioan jartzea, beste erakunde batzuetan nagusi diren dinamika zurrunen aurrean.

### **Etorkizunerako erronkak**

- Abian jarri ditugun proiektuak (glosarioa, agenda, foroa...) finkatzea.
- Gure edukien bidez feminismoarekin kontzientziatuta ez dagoen jendea erakartzea.
- Espazio inklusiboa eta irisgarria izatea: aniztasun funtzionala duten emakumeengana, landa-mundukoengana, zaharregana, haurrengana... iristea.
- Beste hizkuntza batzuetan eduki gehiago argitaratzea (Espainiako hizkuntza minorizatueta, baina baita ingelesez eta frantsesez ere).